



ZER DA DESBERDINTASUNA?

“Milaka ikertzaile aritu badira ere beren karreretan desberdintasunak aztertzen, harrigarria da kontzeptuari buruzko definizio zorrotzik ez egotea (...). Hitzak erabiltzen dugu jakintzat emanda zer esan nahi dugun, baina oso ongi argitu gabe **zergatik deitzen diegun “desberdintasun” gauza jakin batzuei eta ez beste batzuei**”¹.

John Rawls-en arabera, “ez genuke desberdintasuntzat jo beharko karguen eta posizioen arteko edozein diferentzia, baizik eta kargu eta posizio horiei zuzenean edo zeharka lotutako **etekinetan nahiz kargetan gertatzen**

diren diferentziak, hala nola aberastasuna”². Orduan, ezinbestez desberdintasunezkoa litzateke aristokrata ingeles baten eta nekazari guatemalar baten arteko harreman bat? Bai, **baldin eta egoeren edo pertsonen arteko oreka falta jotzen badugu “desberdintasun”-tzat**.

Searle filosofoarekin bat, behatzailearen begiradaren arabera izanen da galderaren erantzuna. Hau da, Searleren arabera, halako subjektibotasun bat dakar desberdintasun kontzeptuak. Halere, aski objektiboa dirudi honako hau baieztatzeak: badago desberdintasun erreal bat pertsonen arteko diferentziek estigmatizazioa sortzen badute, eta arrakala sozialak betiketzen badituzte.

¹ NOGERA, José Antonio, *Sobre el concepto de desigualdad en ciencias sociales*.

² RAWLS, John, *Justicia como equidad* (1958), *Justicia como equidad* lanean (Madril, Tecnos, 1986), 80. or.



BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA

Berdintasunaren eskubideak hau dakar berekin: **pertsona guztiek, munduko edozein tokitan, eskubide eta askatasun guztiak gauzatu ahal izatea.** Eta hori horrela da edozein dela ere “arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste edozein iritzi, jatorri nazionala edo soziala, posizio ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza”³. Horri dagokionez, **pertsona guztiek beren oinarritzko eskubideak erabateko berdintasun-baldintzetan gauzatu ahal izatea zuzenki erlazionatuta dago justizia sozialaren ideiarekin.**

Justizia soziala funtsezko printzipio bat da elkarbizitza baketsu eta oparo bat egon dadin.

Pertsonen arteko arrakalak sortzen dituzten oztopoak desagerrarazten ditugunean ageri da justizia soziala. Justizia Sozialaren Indizearen gaineko txostenarekin (Europar Batasuna, 2017⁴) bat, 6 balio har daitezke kontuan Estatu baten justizia soziala neurtu ahal izateko:

- **Pobreziaren prebentzioa:** Langabezia, bazterkeria soziala, gabetze materiala eta familien diru-sarrerak oinarri hartuta.

- **Ekitatea hezkuntzan:** Ikasleen emaitza akademikoak ezin dira izan haien jatorri sozioekonomikoaren araberrakoak.

- **Kalitateko lan-merkatua:** Soldaten maila, gazteen langabezia, prestakuntza gutxi dutenentzako lan-aukerak edo lan informalaren portzentajea hartzen dira kontuan.

- **Kohesio soziala eta diskriminaziorik eza:** Gizarte bakoitza polarizatzen ari ote den neurtzen du, edo talde jakin batzuk baztertzen ote diren. Herrialde bakoitzeko gizarteratze- eta integrazio-politikak aztertzen dira.

- **Osasun-estaldura unibertsala:** Pobrezia handituta ere ezin da areagotu funtsezko tratamenduetarako sarbiderik ez duten pertsonen kopurua. Osasun-politikek eta bizi-itxaropenak justizia sozialari buruzko datu garrantzitsuak ematen dizkigute.

- **Belaunaldien arteko justizia:** Funtsean, esan nahi du egungo belaunaldiek ez dutela bizi behar etorkizuneko belaunaldien bizkar. Transferentzia bidegabeek oso ondorio negatiboak dituzte, arlo ekonomikoan, sozialean, baita ingurumenekoan ere, saihestu beharrekoak.

Horiek guztiak daude Garapen Iraunkorrerako 10. Helburuaren 10. xedeen artean, herrialdeen arteko desberdintasunak murrizteari begira.



³ Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, 2. artikulua

⁴ Social Justice in the EU – Index Report 2017, *Social European Journal*



DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA ZENTZURIK ZABALENEAN

10. GIHa Agenda 2030eko helbururik zabalenetakoa da, anbizio handikoa. Arazo-sorta zabala hartzen du, den-denak funtsezkoak **herrialdeetako eta herrialdeen arteko desberdintasunak murrizteari begira.**

Helburu honen hasierako 3 xedeek **berdintasunerako eskubidearen funtsezko alderdiak** berreskuratzen dituzte: biztanle pobretuenen diru-sarrerak handitzea (10.1 xedea), gizarteratzea (10.2 xedea) eta berdintasun-aukera (10.3).

Jarraian, aipatzen du zer egin beharko litzatekeen **berdintasunerako eskubidea gauzatu ahal izateko**: merkatuei eta babes sozialari buruzko politikak eta araudiak hobetzea (10.4 eta 10.5 xedeak) eta Garapenerako Laguntza Ofiziala sustatzea (10.b xedea).

Baina, gainera, **helburu zabal honek xede espezifiko bat ere badu: laguntzea bereziki kalteberak diren pertsona eta herrialdeei.**


Zehazki, egoera ahulenean dauden herrialdeen kasuan, Agenda 2030ak dio beharrezkoa dela ordezkari eta esku-hartze gehiago izatea nazioarteko erabakietan (10.6 xedea).

Pertsona kalteberei dagokienez, etorkinak hartzen ditu ardatz, eskatuz erraztu dadila “pertsonek migrazio eta mugikortasun

antolatuak, seguruak, aratuak eta arduratsuak” (10.7 xedea). Migrazio-mugimendu horiei dagokienez, 10. GIHa arazo batez kezkatzen da bereziki: diru-bidalketak eta transakzio-kostu handiak bidalketa horiek etxera igortzeko orduan.

Izan ere, oso garrantzitsuak dira lanean ari diren etorkinen diru-bidalketek euren jatorrizko herrialdeetako familien ekonomian sortzen dituzten etekinak. Halere, diru-bidalketa horiek balio bat galtzen dute transferentzien kostu handia dela eta. Mundu mailan, diru-bidalketen kostua % 7tik gorakoa da bidalitako kopuru osoaren gainean, garestiena delarik merkataritza-banku edo posta-bulego baten bidez egiten dena. 10.c) xedeak nahi du kostu hori ez dadin izan % 3tik gorakoa, baina, horretarako, beharrezkoa da teknologia berriak (operadore mugikorrak) mundu osoko bazter guztietara iristea.

Diru-bidalketen batez besteko kostua guztira, bidalketa-zerbitzuen hornitzaileen arabera, 2017ko lehen hiru hilekoan (guztira bidalitako muntaren portzentajea). Iturria: GIH 2017ko txostena.





NORK ZER EGIN?

NAZIOARTEKO MAILAN



Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) nazioarteko erakundea arduraten da herrialdeen arteko merkataritza erregulatzen duten araez. Helburu hau du: laguntzea onura eta zerbitzuen ekoizleei, esportatzaileei eta inportatzaileei, euren jarduera behar bezala egin dezaten. MMAren akordioekin bat, 10.a) xedek proposatzen du tratu berezia eman behar zaiela gutxien aurreratutako herrialdeei, haien merkataritza-harremanei laguntze aldera.

NAZIO MAILAN



Funtsezkoa da Espainiak, eta herrialde bakoitzak barne-mailan, aplikatzea "migrazio-politikak ongi planifikatuak eta antolatutak", 10.7 xedek ezarri bezala. Behar-beharrezkoa da exijitzea EBko herrialdeei 10.7 xede hori betetzeko, ikusita zer krudela den jaioterrian sortutako gatazkengatik alde egin behar izan duten iheslariak bizitzen ari diren krisialdi latza.

TOKI MAILAN



Besteak beste, Gurutze Gorriak kudeatzen du nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera-programa, Espainiako hiri bakoitzean. Ezagutu haien lana [bideo](#) honetan.

ETA ZUK, ZER EGIN DEZAKEZU?



"Pobre jaioz gero, ikastea da sistemaren aurkako errebeldia-ekintza nagusia. Jakintzak esklabotasunaren kateak hausten ditu" (Tomás Bulat).

Haur eta Lehen Hezkuntza

Noizbait pentsatu duzu ea zergatik den zuria "haragi-kolorea", hainbeste azal-kolore egonda? Ikasleekin mural bat egin dezakezu, munduan dauden "haragi-kolore" guztietako pertsonak irudikatuta. Inspirazio-iturri gisa, Ubuntuland-ek egindako [bideo hau](#) ikus dezakezue ikasgelan. Ezagutu, haren [webgunean](#), haragi-koloreei buruzko pinturaz egin duen ekimena.



Lehen Hezkuntzako ikasleekin, gogoeta bat egin dezakezue: zergatik diskriminatzen ditugu pertsona batzuk haien "haragi-kolorea" dela kausa? Izan ere, ez al gara den-denok "haragi-kolorekoak"?

Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

10. GIHa lortuko badugu, herritartasun global eta inklusibo bat lortu behar dugu, berdintasunean oinarritua. [Bideo hau](#) ikus dezakezue, non etnien arteko herentzia genetikoak azaltzen baita; gero, ikasle bakoitzak zuhaitz genealogiko bat egin dezake. Haren aurrekoak erregio edo herrialde desberdinetakoak izango dira. Banaka edo taldeka, erregio edo herrialde horietako bat aukeratu dezakete, eta historian zehar izan duen demografia aztertu, ikasteko zer herri bizi izan diren bertan (Espainia bada: feniziarak, greziarrak, erromatarak, bisigodoak, musulmanak...). Historian zehar izandako migrazio-korronteei esker daukagun herentzia genetikoari buruzko hausnarketa egin

Proiektuaren egilea: 

Laguntzailea:  Universidad de Navarra
Instituto de Derechos Humanos

Finantzatzailea:  Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra